

# **RASFF TXOSTENA**

---

## **ALERTAK eta JAKINARAZPENAK**


### **PENTSUAK**

#### **2018ko URTEKO TXOSTENA**


**Jakinarazpenen kategorizazioa**  
**Atzemandako arriskuen jatorria**  
**Tartean dauden produktu motak**  
**Tartean dauden lehengaiak**  
**Aurreko urteen arteko konparazioa**

## JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA


2018an pentsuei buruzko 313 jakinarazpen egin dira. Horietatik **46 (% 14) alertak izan dira, 168 (% 54) informazio-jakinazpenak eta 99 (% 32) mugan egin diren ukapenak.**



Hona hemen urtean zehar RASFFen bitartez jasotako jakinarazpenen kopuruan izandako joera:




Tartean dauden produktuen jatorriko herrialdeei dagokienez, hirugarren herrialdeek egin dituzte jakinarazpenen % 43.



### ATZEMANDAKO ARRISKUEN JATORRIA


2018an atzemandako arrisku gehienak **mikrobiologikoak izan dira (% 52)** eta jarraian honako hauek ditugu: **mikotoxinak (% 19)**, **metal astunak (% 5)**, **PAEak (% 5)**, **dioxinak (% 5)** eta **beste arrisku batzuk (aizunketa, ambrosia spp.ren presentzia, gosipol askea, etab.) % 15**.



Arrisku mikrobiologikoei dagokienez, **Salmonellak** eragin ditu jakinarazpen gehienak (**130**). Salmonella atzeman den lehengaien artean honako hauek daude: **soja-produktuak, koltza-produktuak, ekilore-produktuak, arrain-irinak, animalia jatorriko irinak (haragia, hezurak, lumak, etab.) eta txakurrentzako mastekagarriak.**


**B1 aflatoxina** izan da arrisku mota honekin lotutako jakinarazpen gehienetan identifikatutako mikotoxina, batik bat **kakahueteetan** atzeman delako.

**2018an jakinarazitako arriskuak, lauhilekoko**




## TARTEAN DAUDEN PRODUKTU MOTAK

Produktuka aztertuz gero, **lehengaiak eragin dituzte jasotako jakinarazpenen % 61, laguntza-animalientzako pentsuak % 29, gehigarri eta aurre-nahasteak % 6 eta loditzeko animalientzako pentsuak % 4.**




Jakinarazpenetan tartean dauden produktuen bilakaera, lauhilekoko:




**TARTEAN DAUDEN LEHENGAIK**

Nabarmentzekoa da lehengai hauek eragin dituztela jakinarazpen gehien: **kakahueteak (54)**, **arrain-irinek (35)**, **soja-produktuek (33)**, **laguntza-animientzako pentsuek (29)**, **koltza-produktuek (28)**, **haragi-/luma-/odol-irinek (25)**, **txakurrentzako mastikagarriak (15)**, **ekilore-produktuek (14)** eta **gizentzeko animalientzako pentsuek (13)**.




Honako grafiko honetan jakinarazpenen bilakabidea azaltzen da, lauhilekoko, tartean dauden lehengaiak aintzat hartuta:



## AURREKO URTEEN ARTEKO KONPARAZIOA

2018an 313 jakinarazpen egin dira; 2017an, berriz, 240 jakinarazpen. Aurreko urtearen aldean, **2018an gora egin du jakinarazpenen kopuruak kategoría guztietan.**



2014. urtetik 2018. urtera bitartean identifikatutako arriskuei dagokienez, nabarmendu egin behar da mikrobiologia arriskuen eragina, betiere atzemandako gainontzeko arriskuekin erkatuz gero. Oro har, 2018an identifikatutako arrisku gehien jakinarazpen mantendu egin dira, aurreko urteen aldean, **mikotoxinak** salbu.

